



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

«Daitort, euskañolez dagit»

Daitort, euskañolez dagit». Egunero-egunero, aditz trinkoak baino askoz ere gaztele-razko esamolde, hitz solte eta emendailu («koletilla», euskañoldunontzat) gehiago darabilzkit. Arrebarekin, lagun minekin, lan-kideekin, ikasleekin... gaztelera txertatzen da nire euskaran barra-barra. *Guatxapeko* mezuak ikusi besterik ez dago: «Berandu nabil, *es que mobida* izan dut lanean, *en fin*, gero kontatuko dizut». Aldi berean, aitortzen dut ez naizela lotsagorritzen sudurra panpoxki zimurtzen dudanean eta lau haizeetara aldarrikatzen dudanean «eskerrik» erantzuten dutenek betiereko infernuko zigorra merezi dutela. Bakoitzak gure fobiak dauzkagu.

Aurreko asteetan, arreta jarri dut aldirietako gure institutuko pasabideetan eta ikusi dut ikasle askok euskara trufa egiteko bakarrik erabiltzen dutela. Irakasleak imitatzeke: «Baina aizu!! Zer gertatzen ari da hemen!?!?». «Parte bat jarriko dizut, e!!». «Mutiko, sartu klasera!!». Euskara errieta egiteko hizkuntza bezala identifikatzen dute. Irakasleen hizkuntza, argot berezi bat, hiriguneetako gatzetxoen eskolako egunerokotasunean oso presente dagoena baina ez dena haiena.

Ahaztu gabe betiere, gure ikasleen ehuneko polit bat ederki moldatzen direla euskaraz eta, guraso euskaldunak izan edo ez, gus-tura erabiltzen dutela. Euskaraz arazo handirik gabe moldatzen diren asko eta asko, gainera, Europatik kanpo-ko gurasoak dituztenak dira. Horiek ez dute ondo konpre-nitzen Euskal Autonomia Er-kidegoko eskizofrenia lin-guistikoa eta gaztelera ikasi duten bezala, euskara ere be-

re egin dute. Ezin imajina dezakete XXI. mendean areago-tzen ari den prozesu soziolinguistiko oso arriskutsua. Eta horren erruduna autonomismo sana da. Autonomismo sanorik ez dago, ez bada erdipurdiko chauvinismoa eta euskara bitxikeria bezala erabiltzea. Autonomismo sana eta bere autosufizientzia gastronomikoa indartu zirenetik euskara gainbeheran doa abiada izugarrian. «Ocho apelli-dos vascos» filmeko protagonistek beren lekua erreserba-tuta dute infernuan, «eskerrik» esaten dutenen ondoan.

Nahiz eta batzuek ez ikusiarena egin, arazoa ez da hiri-buruetako gazte eta ez hain gazteok euskañolez egi-tea. Chill Mafiako mutikoen inguruko isekari, *¿sabes?*,

klasismo eta etnizismo kutsu nazkagarria dario. Arazoa da euskara ohiko hizkuntza izan den herri eta hiri ertainetako milaka eta milaka pertsonak gaztele-raz egiten dutela ia beti eta, harrigarriena, beraiek euskaraz bizi direla uste dutela eta euskalduntasun eta zuzentasun lezioak ematen dituztela. Gu, Bur-gosera iritsi aurretik dago-en Euskal Herri horretako hiritarrok, oso kontziente gara gure hizkuntza ohitu-rekin eta badakigu erdara-ra jotzen dugula etengabe. Euskara luzaz biziko bada, hiriguneetako auzoetako gazteek bere egingo dute-lako da. Ordua da txistorra eta trikitia eredu gisa har-tzeari uzteko, txistorraren eta trikitiaren euskaldun horiek, Euskal Herri imaji-nario horretako biztanle-ek, gaztelera egiten dute-lako beren herrietan eta etxeetan. Bueno, uste dut jada mundu guztia mindu dudala. Eta gaztelera-ko hitz gehiegi erabili gabe, gainera. •



Ilustrazioa: Jonbi EGURTZEGI